

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ESKUERNAGAKO UDALA

Lehiaketa bidez zerbitzu askotarako behargin lanpostu bat eta garbitzaile lanpostu bat betetzeko deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda

Alkatearen 2023ko azaroaren 20ko dekretu baten bidez, honako hau ebatzi da:

Udal honetan, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko, 2 lanpostu huts betetzeko oinarriak onetsi ziren: langile lan kontratudunak; zerbitzu askotarako behargin lanpostu bat; administrazio bereziko eskala; zerbitzu berezietako azpieskala; E taldea; 1. hizkuntza eskakizuna, derri-gortasun datarik gabe, eta garbiketako langile plaza bat; administrazio bereziko eskala; zerbitzu berezietako azpieskala; E taldea, 1. hizkuntza eskakizuna, nahitaezkoa.

Hautaketa oinarri horiek 2022ko abenduaren 21eko ALHAOn (146. zk.) argitaratu ziren, eta laburpen bat 2023ko urtarrilaren 19ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (16. zk.), eta hogeï egun balioduneko epea hasi zen prozesuan parte hartu nahi zuten hautagaiek eskabideak aurkez zitzen.

Epe horretan, eskaera bat aurkeztu zen zerbitzu askotarako behargin lanposturako, eta beste bat garbitzaile lanposturako, eta eskaera bakar bat ere ez da baztertu.

Horregatik guztiagatik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 g) artikulua ematen didan eskumenaz baliatuz, honako hau

Lehenengoa: Onestea zerbitzu askotarako behargin lanpostu bat iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko araubidearen bidez betetzeko Eskuernagako Udalak deitutako hautaketa prozesuko onartutako eta baztertutako hautagaien zerrenda hau:

Onartutakoak

IFZ	IZEN-ABIZENAK
***1978**	Sergio Sarasua Florín
Puntuazioa	90 puntu

Bigarrena: Onestea garbitzaile lanpostu bat iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko araubidearen bidez betetzeko Eskuernagako Udalak deitutako hautaketa prozesuko onartutako eta baztertutako hautagaien zerrenda hau:

Onartutakoak

IFZ	IZEN-ABIZENAK
***8699**	Marta Manuel Gil
Puntuazioa	78 puntu

Hirugarrena: Ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamar egun balioduneko epean erreklamaziorik ez badago, zerrenda hori behin betikoa izango da.

Laugarrena: Lanpostua betetzeko hautaketarako epaimahai kalifikatzailea honako hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Igor Rubio Garay.

Bokala: Belen Iradier Ortiz de Orruño.

Bokala: Piedad Ortiz de Viñaspre Guzman.

Idazkaria: M. Lourdes Miranda Lafuente.

Bosgarrena: Ebazpena ALHAOn, Udalaren iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratzea.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Eskuernagako Udaleko alkateari, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu ondorengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Gasteizko Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua xedatutakoarekin. Aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztea erabakiz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi edo isilbidez ezetsi arte.

Eskuernaga, 2023ko azaroaren 22a

Alkatea

IÑAKI PEREZ BERRUECO